



URTEKO TXOSTENA 2016

ZURE AMETSAK ERREALITATE
BIHURTZEN DITUGU

Sandra Rebate
EKINTZAILEA



gaztenpresa
fundazioa

LANKIDETZAK

ERAKUNDE SORTZAILEA



ERAKUNDE KOFINANTZATZAILEAK



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK





Love

**"Zoriontsu naiz
gustatzen zaidana
garatzen"**

(Enpresen sorrera)
Beatriz Aranda

BEXCLUSIVE EVENT
Ekitaldiak apaintzen dituzte

BIZKAIA



gaztenpresa
fundazioa



**“Geuk erabakitzen
dugu eta inork ez
gaitu mugatzen”**

(Enpresen sorrera)
Naiara y Mikel

OREKA t MEJORA
Jarduera Zentroa
NAFARROA

AURKIBIDEA

1. PRESIDENTEAREN GUTUNA

2. NORTZUK GARA

3. JARDUNBIDEAK

- ENPRESAK SORTZEA
- ENPRESAK FINKATZEA
- MENTORING PROGRAMA
- KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEA

4. KOMUNIKAZIOA, WEBGUNE ETA SARE SOZIALAK

5. ALIANTZAK ETA PARTE HARTZEN DUGUN SAREAK

6. URTEKO KONTUAK



PRESIDENTEAREN GUTUNA

XABIER EGIBAR

Gaztenpresaren helburua da pertsona ekintzaileari sostengu integrala eskaintzea, eta horretarako berarekin kooperatzen dugu bai bere enpresa-proiektua abiatzen duen arte eta bai horren osteko lehenengo urteetan ere; horri begira, oraindik ere ezagutza eta esperientzia nahikorik ez duen kudeaketa-eremuetan eskaintzen diogu laguntza, alor horietan behar duen kontraste kualifikatua eskaintzeaz batera.

Gure jatorrizko helburua da enpresa berriak sortzen laguntzea, enplegua sortzea eta enplegu horri eustea. Bada, zifrak dira asmo horren arrakastaren erakusgarria: 2016an, sostengu handia eman diegu negozio eta mikroenpresak abiatzeko ekimenei; izan ere, ia 400 negozio eta mikroenpresa eratu dira, eta horiei esker 717 lanpostu berri sortu dira. Ikuspegi historikoz begiratuta, Gaztenpresak bere jarduna hasi zuen 1994 urte urrun hartatik, 4.500 enpresa abiatzen eta 8.000 lanpostu baino gehiago sortzen lagundu dugu.

Horri guztiari ikuspegi kooperatibo batez heltzen diogu, hau da, eragile ekonomikoen nahiak batzeko asmoarekin, alor publikoa,

alor pribatua eta alor soziala –hirugarren sektore deritzana- uztartuta.

Alor publikotik, Gaztenpresaren jardunean oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ekarpena, eta baita Lanbidek (Euskal Enplegu Zerbitzua) egiten duen ekarpena ere, euren sostengu ekonomikoagatik ez ezik, langabeei enpresak abian jartzeko gurekin batera egiten duten lanagatik ere. Orobat, aipatzekoa da Garapen Agentziekin egiten dugun lan bateratua, zeren lankidetzak eskatzen baitigute euren ekintzaileen lehenengo urratsak finantzatzen laguntzeko.

Ekimen pribatuaren aldetik, berriz, LABORAL Kutxako kudeatzaileak dira lehenengo kontaktuak egiten dituztenak, baina baita arriskua duten erabakiak hartzen dituztenak ere, zeren finantzatzen dituzten proiektuen hasierako fasean pertsona eragilearen ezagutza eta gaitasunak izaten baitira bideragarritasunaren argudio bakarrak. 2016ko datuak islatzen duenez, LABORAL Kutxak finantzatu du ekimen berri horiek errealitate bihurtzeko beharrezkoa den inbertsioaren % 64.

Mentoring eta boluntarioria

Pertsona ekintzaileen sostenguari dagokionez, azpimarratzekoa da euren jarduera abian jarri ostean badugula 70 mentorez osatutako talde bat, sistematika konkretu batez urtebetez egoten dena ekintzailearen ondoan, ekimen berri guztietan sortzen diren lehenengo zailtasunak gainditzen laguntzeko. Mentore horiek bai LABORAL Kutxako profesionalak eta bai jadanik esperientzia duten pertsona ekintzaileak dira. Ezin ahaztu dezakegu haien ekarpen mardul eta desinteresatua aitortzen eta eskertzen.

Teknologia eta Sareko lana

Teknologia gure lan egiteko formetan txertatzea etenik ez duen fenomeno geldiezin bat da. Bada, Gaztenpresaren oinarritzko barne-helburu bat da informazio eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera: sare sozialetan parte hartzea, eta pertsona ekintzaileei kanal horiek euren negozioaren estrategiaren baitan erabiltzen laguntzea.

Gaztenpresaren digitalizazio gero eta handiagoaren adierazle bat da atenditutako pertsonen % 22k webgunetik beretik – gaztenpresa.org- hasi zutela kontaktua, aurretik harreman pertsonalik izan gabe.

Nolanahi ere, sareko lanak badu hain digitala ez den beste osagai bat, hau da, lankidetzaren kontzeptua eta aliantzen bilaketa. 2016an, garapen garrantzitsu batzuk izan dira esanguratsuak:

Lanbiderekin dugun aliantzari esker, guztira 12 lan-jardunaldi egin dira Gaztenpresak langabeei eskaintzen dizkien prestazioak ezagutzera emateko. Horren bidez, laguntza-ibilbide bateratu batean lan egin ahal izan dugu.

2016an, LABORAL Kutxak hitzarmen berri bat sinatu du Europako Inbertsioen Funtzarekin (EIF), EaSI mikrokredituei buruz 2015ean hitzartutako akordioa luzatzeko. Hala, hitzarmen horrek Gaztenpresaren maileguen arriskuaren zati handi bat bermatzen du, 25.000 €-raino. Hitzarmen berriak zenbateko txikiagoko operazioak hartzen ditu barne, hau da, gizarte-ekonomiako enpresak sustatzera bereziki zuzendutako operazioak.

Halaber, garrantzitsua da Gaztenpresa inplikaturik dagoela autoenplegua sustatzera zuzendutako Youth Business International sare globalaren jardunean. Eta mikrokredituen alorrean garrantzitsua da European Microfinances Network sarean dugun parte-hartzea.

Bukatzeko, azken datu bat gehitu nahi nuke, alegia, generoaren alorreko gaitan gure jardunaren benetako parekotasuna islatzeagatik harrotasunez azpimarratzen dugun datu bat. Hain zuzen ere, euren negozio berria gure lankidetzarekin iaz garatu zuten 386 pertsonetatik 194 emakumeak izan ziren eta 192 gizonak.





**“Hobe da
norberaren
ametsaren
alde lan
egitea”**

(Enpresen sorrera)

Joseba Ubiria

KAÑABIKANA
Artisau-garagardoak
GIPUZKOA

NORTZUK GARA

Gaztenpresa LABORAL kutxaren ekimen bat da, bere Gizarte Lanaren eremuko.

Gure helburua da enpleguaren sorrera eta finkapena sustatzea, enpresak sortzearen bitartez.

FUNDAZIOAK HONAKO HAUEK HARTZEN DITU XEDETZAT:

- Pertsona ekintzaileak, euren adina zeinahi delarik ere.
- Garapen-proiektuak dituzten mikroenpresa gazteak.
- Sen ekintzailea euren pertsona erabiltzaileen artean sustatu nahi duten erakundeak.

BOLUNTARIO-TALDEEZ

- Horretarako, boluntario-taldeen osatutako egitura bat dugu: LABORAL kutxako pertsonak, euren esperientziarekin modu altruistan laguntzen dutenak, pertsona ekintzaileen enpresa- eta lanbide-garapenarekin kolaboratuz eta garapen hori bultzatuz.
- Kolaboratzea eta ondoan egotea.

GUZTIRA, 106 PERTSONA BOLUNTARIO DITUGU:

- BOLUNTARIO KORPORATIBOAK: 69
- KANPOKO BOLUNTARIOAK: 37



Gaztenpresarentzat, garrantzitsuena pertsona ekintzaileak dira, hau da, askotariko arrazoiak direla medio egun batean urrats hori egitea erabaki zutenak, euren bizitza eta euren familien bizitzak hobetzeko; historia txikiak, pozez betetzen gaituztenak eta gure jarraitzeko eta hobetzeko motibazioa indartzen dutenak. Txosten honetan, historia erreal horietako batzuk islatzen dira. "Errealitate bihurtzen diren ilusioak".

YA INNMO



**“Amets
baten alde
borrokatzen,
Sektorean
20 urte eman
ondoren”**

(Enpresen sorrera)

M^a Carmen Ibañez

YAINMO
Etxe-agentzia

ARABA

**“Nire irudimena
da aurrera
egiteko dudan
tresnarik onena”**

(Enpresen sorrera)

Alvaro Soroa

MAGICFLY
Esperientzien Tourra
BIZKAIA



TALDEA

PATRONATUA

X. Egibar, J. Emaldi, I. Urgoiti,
I. Martinez, J. Cortajarena, C. Osés,
P.Ugalde, J. Usatorre, T. Pérez
Joseba Sagastigordia

KOORDINAZIO OROKORRA

X. Egibar, J. Emaldi, I. Ramos

KOORDINAZIO TALDEA DNA + GAZTE

Borja Garate
Ander Toña
Eñaut Erdoiza
Gorka Zaldunbide

KOORDINAZIO TALDEA SAREA + PRO + GAZTE

GIPUZKOA
JM Osteriz
I. Zamorano - K. Alzaga
I. Juanbeltz - I.Otaegi
A. Azurmendi - M. Loyola
J. Larrañaga - N. Lopetegi

NAFARROA:
Lucio Tirapu
Eduardo Elizalde

BIZKAIA
V.Gómez
P. Crespo
A. Godino
A. Berlanga
P.M. Durán
E. Beasain
A. Citores

ARABA
J.C Díaz
J. Perez Muñoz (PRO)

ARRISKUA DUTEN OPERAZIOEN BATZORDEA LERRO BEREZIA

Iñigo Martinez
Valentin Gómez
Juan M. Osteriz
Borja Garate
Inma Ramos

MENTORING

YBS
Patrono: Ricardo Agirre
Borja Garate

Mentoring Manager
Ana Artetxe

70
Mentoreak





**“Besteei
laguntzeko
ilusioa”**

**GIPUZKOAKO
BOLUNTARIOEN TALDEA**






**“Asetasuna
ametsak egi
bihurtzeagatik”**

**BIZKAIKO BOLUNTARIOEN
TALDEA**





**“Ametsak errealitate bihurtzeak dakarren poza”
Gogorra da, baina**

(Enpresen sorrera)

Zohra Bozan

“ENTRE DOS AGUAS”

Tetegia

NAFARROA

IMPAKTUA


PROGRAMAREN IKUSPEGI HISTORIKOA

4.500

ENPRESA BAINO GEHIAGO SORTUTA

8.000

LANPOSTU BAINO GEHIAGO



717 LANPOSTU

386 ENPRESA



gaztenpresa
fundazioa

AITORTZAK

CORRESPONSABLES FUNDAZIOA:

Laboral kutxa saritu zuen 2010ean, "Enpresa Handia" kategorian, "Gestiona-t en Gaztenpresa" proiektuagatik

SAN PRUDENCIO FUNDAZIOA:

Finalistak Enpresa-jardunbide egokientzako sarietan.

EUSKALIT - CLUB 400:

Finalistak berrikuntzaren alorreko Jardunbide egokientzako sarietan.

GIORDANO DE'LL AMORE MICROFINANCE GOOD PRACTICES EUROPE AWARD 2014:

Aipamen berezia mikrokredituak kudeatzeko jardunbide egokientzat.

2015EKO EMAKUMEZKO ZUZENDARIARENTZAKO SARIA:

AMPEAk emanda (Arabako emakume enpresaburu, profesional eta zuzendarien elkartea),

2016EAN – MENTORING-HARREMAN ONENAREN SARIA

YBSk emanda Pablo Bringasen eta David Mayoralen arteko harremanari.



A woman with short brown hair, smiling and looking slightly to the right. She is wearing a white long-sleeved top with a black pattern of stylized figures. The background is a brightly lit room with colorful furniture, including a pink table and blue chairs, and a wall with various items.

**“Zerbait propioa
izan nahi nuen”**

(Enpresen sorrera)

Ainhoa Gamarra

TXANOGORRITXU
Hurtzaindegia

BIZKAIA



gaztenpresa
fundazioa

JARDUNBIDEAK

1. Enpresak sortzea
2. Enpresen finkapena
3. Mentoring programa
4. Ekintzailletza sustatzea





“Geure proiektua da”

(Enpresen sorrera)

Asier Martinez

EMOTIO
Gimnasio Emozionala

BIZKAIA

ENPRESEN SORTZEA

Gaztenpresaren helburua da enplegua sortzen eta iraunarazten laguntzen duten ekimenak sostengatzea eta horretara zuzendutako ekintzak garatzea. Enpresa berriak abiatzen laguntzeko zereginean dugun esperientzia oso erabilgarria izango zaizu zeure negozioa abiatzeko egin behar dituzun urrats guztiei heltzerakoan.

Berdin da zure adina zein den edo zure proiektua zer etapatan dagoen... enpleguaren sorrerarekin konprometituta gaude, eta bestelako modu bat proposatzen dugu zuri laguntzeko.

Zure ondoan gaituzu proiektua abiatzeko zereginean, hasieratik bukaerara arte.

- Arreta eta aholkularitza pertsonalizatua.
- Akonpainamendua behar duzun guztirako: negozio-plana aztertzea, laguntzak eskatzea...
- Finantziarioa, baldintza berezitan.

386 2016AN
SORTUTAKO
ENPRESAK

717 2016AN
SORTUTAKO
LANPOSTUAK

2016AN SORTUTAKO ENPRESAK	
ARABA	75
BIZKAIA	169
GIPUZKOA	85
NAFARROA	57
GUZTIRA	386

2016AN SORTUTAKO LANPOSTUAK	
ARABA	130
BIZKAIA	299
GIPUZKOA	173
NAFARROA	115
GUZTIRA	717

AUSARTU ZAITEZ EKINTZAILEA IZATEN 5 urrats zure negozioa abiatzeko



1 Ideia



Gaztenpresak **20 urtetik gorako esperientzia du** enpresa berriak sortzeko aholkularitzaren alorrean. Laguntza ematen dizugu ikusteko ea zure ideia negozio-aukera ote den, eta laguntzen dizugu, halaber, ideia hobetzen eta zentzu ekonomikoa ematen.

2 Negozio-plana




Negozio-plana funtsezkoa da ekintzailtzarako. Enpresa bat sortzeak berekin dakartzan inplikazio guztiak ulertzea ahalbidetzen dizu. **Plan egituratu baten forma eman zeure ideiari, errealitate bihurtu ahal izateko. Ideia batek funtzionatu ote dezakeen ebaluatzea ahalbidetzen dizu.**

3 Tramiteak



Enpresa bat sortzeko tramiteak astunak eta gogaikarriak izan ohi dira, eta geuk ondo ezagutzen ditugu. Zure zalantzak argitu ditzakegu, hainbat punturen inguruan: autonomia izateko modua, gizarte segurantzaren ordainketa, laguntzak eta diru-laguntzak...



**"Gustatzen
zaiguna egiten
dugu, eta
sheriffak gara"**

(Enpresen sorrera)

German Bellota y Eder Gómez


KIM BOXING

Boxeo Gimnasioa

BIZKAIA



gaztenpresa
fundazioa



Urtean ia
2.000
 eskari atenditzen ditugu

eskarien
%57
 hurrengo fasera pasatzen da

Araba %13
 Bizkaia %54
 Gipuzkoa %22
 Nafarroa %11



Patricia eta Maitane (Ekintzaileak)

MAPAVERDE
 Jatetxe begetarianoa

GIPUZKOA

eskarien

%38

BIDERAGARRIA



Finkapena %8

besteprograma batzuetara desbideratzen da %9

ez du irekitzen %23

proiektu bideragarriak dira %38

Kontsultak dira %22



Joseba Bontigi (Ekintzaile)
BASQUE SURF PHOTO
Argazkilaria
GIPUZKOA



gaztenpresa
fundazioa

4 Finantziazioa



Finantziazio-plan bat egiten laguntzen dizugu, zure proiektuaren beharrak baloratzeko eta finantziazio-iturri egokienak eta kostu txikienekoak aukeratzeko.

Kontuan hartu behar da nola egokitzen zaizkion eskura izango ditugun funts horiek negozioaren bidez diru-sarrerak sortzeko epeari.

Finantziazioa eskura dezakezu baldintza berezitan, eta baita ekintzailetzarako finantziazio-hitzarmen espezifikoak ere: Europako Inbertsio Funtsa, Elkarren Bermerako Sozietateak, ekonomia sozialeko erakundeak...



Santiago Gimeno (Ekintzaile)

DON JIMENO

Merkataritza

BIZKAIA

2016AN SORTUTAKO ENPRESAK

% 76 finantziazioa
sinatuta zuen

FINANTZIAZIOA 2016AN
9.699.916 €

FINANTZIAZIOA 2016RA ARTE
130,1 mill €



GAZTENPRESA
FINANTZIAZIOA:

- Mikrokredituak: **% 65**
- 25.000 €-tik gorako
finantziazioa: **% 35**



FINANTZATUTAKO
ZENBATEKOA:

- Mikrokredituak: **%33**
- Financiación mayor
de 25.000€ **%67**





39

Batez besteko adina

GIZONAK

EMAKUMEAK

%50

%50

LAN EGOERA

%54

Lanpostua
galtzear duten
langileak

%46

Langabeak

IKASKETA MAILA

%72

%28

Unibertsitatez besteko
ikasketak

Unibertsitate-ikasketak

FORMA JURIDIKOA

%79

%17

%4

BANAKAKOA OE SZ

S.M.

KOOP.



**“Zoriontsu izatea
bilatzen nuen,
nire hobbya nire
lana da”**

(Enpresen sorrera)

Manuel Nuñez


War Dogs Miniatures

Wargames ,jokoak eta
modelismorako artikuluak..

NAFARROA



gaztenpresa
fundazioa



**“Gustatzen zait
asmatu eta
etorkizuna sortzen
dutenen artean
egotea”**

(Enpresen sorrera)

Gorka Muñecas

KASITOKO

Programmatic Influencer
Marketing Technology

BIZKAIA



52.100

BATEZ BESTEKO INBERTSIOA

2016an, enpresa berriak abiatzera zuzendutako batez besteko inbertsioa 52.100 euro izan dira.

33.200

BATEZ BESTEKO MAILEGUA

2016an, enpresa-proiektua gauatzeko beharrezkoa izan zen batez besteko mailegua 33.200 euro izan ziren.

JARDUERA SEKTOREA:

%23

MERKATARITZA

%71

ZERBITZUAK

%06

BESTE BATZUK



gaztenpresa
fundazioa



“Mundua aldatzeko dudan ametsa betetzea”

(Enpresen sorrera)

Jaione Gonzalez

VEGGIE BEGI

Produktu beganoen saltokia

GIPUZKOA



gaztenpresa
fundazioa



“Ardogilea naiz, hauxe da nire

(Enpresen sorrera)


Benito Peciña

SIDRERÍA KUARTANGO
Sagardotegia

ARABA



gaztenpresa
fundazioa



“Txarto pasatzen da, baina oso aberasgarria da”

(enpresen finkapena)

Sara Acebal

SUMELEC

Irtenbide Elektriko Globalak

BIZKAIA

ENPRESEN FINKAPENA

100

TAILER
EGIN DIRA

1.196

PERTSONA
BERTARATU
DIRA

1.402

KONTSULTA
ATENDITU DIRA
PRO ZERBITZUAN

84

ENPRESA
FINKAPEN FASEAN

Zure enpresa abian jarri ondoren, zurekin jarraituko dugu

- Funtsezkoa da enpresen kudeaketan esperientzia duten pertsonen aholkua izatea. Horretarako, Gaztenpresan badugu Mentore talde bat zure lehenengo urratsetan zure ondoan egoteko.
- Beharrezkoa da beti prestakuntza jasotzen jarraitzea, zure negozioaren kudeaketan eguneratuta egoteko. Hori PRO Mintegien eta Gaztenpresaren Tailerren bidez egitera gonbidatzen zaitugu.
- Eguneroko kudeaketaren inguruan sortzen zaizkizun zalantzetarako (gai fiskalak, legalak, laguntzak...), Consulting PRO doako zerbitzua duzu zure esku.
- Baliagarria da zure moduko pertsona ekintzaileekin kontaktatzea, networkinga, esperientziak eta jardunbide egokiak konpartitzea.
- Izan beti kontuan zure PRO zerbitzua, negozio eta enpresen alorrean espezializatutako kudeatzaileak dituelako; zure negozioarako onenak diren Pro finantza-zerbitzuei buruz orientatuko zaituzte.



gaztenpresa
fundazioa



**“Merezi du,
Ilusio handia dugu
erronka berrieekin”**

(enpresen finkapena)

Eva Hernández eta Juan Carlos Caro

ZELAI TXIKI
Jatetxea
GIPUZKOA



gaztenpresa
fundazioa

MENTORING PROGRAMA

Akonpainamendua eskaintzen du (boluntariotzaren eremuan) pertsona gazteen negozioak finkatzeko. Ekintzailetzan eta/edo enpresa-kudeaketan esperientzia handia duen pertsona bat beste baten ondoan egoten da, kontrastea eskaintzen dio eta enpresa-erabakiak hartzen laguntzen dio, beraren kudeaketa-gaitasunak hobetzeko.

Mentoreak lortzen dituen Onura batzuk

- Enpresa-ehun gaztea finkatzen laguntzea.
- Gizarteari ekarpena egitea, ezagutza eta esperientzia eskainiz.
- Ikaskuntza-espazio berri bat irabaztea.

Pertsona Ekintzaileak lortzen dituen Onura batzuk

- Negozioari buruzko erabakiak hartzeko prozesua hobetzea.
- Bere sarea zabaltzea, esperientzia duten pertsonekin kontraste zorrotza egiteko.
- Ikaskuntza-espazio berri bat irabaztea.

Izena eman nahi baduzu

Bidaliezaguzu mail bat: info@gaztenpresa.org

MENTORING	GUZTIRA
Prestatutako pertsona mentoreak	68
Prestatutako pertsona ekintzaileak	79
Sinatutako harremanak	59



“Gure mundu teknikoan galtzen gara, eta enpresa-kudeaketan laguntzen digute”

(Mentoring programa)


Mikel y Josune

SEEYOUZOOM
Realidad Virtual

ARABA



gaztenpresa
fundazioa



**“Laguntza behar
nuen antolaketan,
kudeaketan eta
negozioaren
azterketan,
aurrera egin ahal
izateko”**

(mentoring programa)

Irene Trincado (ekintzaile)
Nagore Ardanza (mentora)

PEDRUSCO
Zeramikazko artisau-bitxiak

BIZKAIA



gaztenpresa
fundazioa

KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEA

Sen ekintzailea eta proiektu berritzaileak euren ikasleen artean sustatu nahi dituzten Unibertsitate eta Lanbide Heziketako ikastetxeentzako laguntza, sostengu ekonomiko eta jarduera espezifikoen bitartez.

Autoenplegua lan-alternatiba gisa ezagutzen ez duten langabeei.



gaztenpresa
fundazioa



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Guztira 104 ikaslek parte hartu dute, 35 proiektu aurkeztuta; horietatik, 11 Latinoamerikako unibertsitateetakoak dira.

1 SARIA: KIRKDRONE

Zurekin hazten den drona. Kirkdronek lego baten filosofia berberarekin funtzionatzen du, hau da, dronaren atalak diseinatuta daude klik batez muntatzeko, modu erraz eta arinean.

2 SARIA: CARELOJ

Teleasistentzia eta telemonitorizazio zerbitzu bat da, zerbitzu bakar baten bidez ematen dena. Hala, bere

tresnen artean erloju adimendun baten forma duen gailu bakar bat du, teknologia propioz diseinatua eta garatua.

3 SARIA: PHARMACRIPTER

Botikak automatikoki eta modu adimenduan saltzearekin zerikusia duten zerbitzuak eskainiko dituen enpresa bat da, polimedikazioa hartzen duten pertsona autonomoei zuzendua.

Proiektuaren egileak Aitor Duo Zubiaurre, Eneko Echeverria Sagarna eta Markel Sainz Oruna ikasleak dira, hirurak Sistema Txertatuen Masterrekoak.





NAFARROAKO UNIBERTSITATEA – TECNUN

ASMAMEN ETA DISEINUAREN

Lehiaketa honen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Pentsaera kritikoa sustatzea. Jakin-mina eta behaketa bultzatzen dituen sena.
- Berrikuntza, ikaskuntza, sormen eta taldekako lanarekin lotutako balio eta jarrerak sustatzen laguntzea.
- Berrikuntza eskola eta unibertsitatearen eremura eramatea.

Hori guztia batxilergoko 1. eta 2. mailetako gazteei zuzenduta, kirolari lotuta; zehazki, kirol-artikuluen inguruan.

12. EDIZIOAN LORTUTAKO EMAITZAK

Parte hartu duten taldeak: 281 talde

Parte hartu duten pertsonak: 810 ikasle, batxilergoko 1. eta 2. mailakoak

Eskola kopurua: 66 eskola

Inplikaturako irakasleen arloa:

Mundu garaikiderako zientziak, Ordenagailuz lagundutako diseinua, Informatika, Gorputz Heziketa, Teknologia, Marrazketa Tekniko eta Artistikoa, Fisika, Matematika eta Ekonomia.





BILBAO BERRIKUNTZA FACTORIA – CORREMPRENDE

Corremprende sortu zen ekintzailletza Bilboko gizartean sustatzeko ekitaldi gisa. Asmoa "corremprende lasterketa solidario" batean islatu zen. LEINNetik sortutako Hirue enpresak antolatu zuen.

Proiektu horren helburua zen negozio-idea bat edo garatu nahi lukeen proiektu-idea bat zuen edozein pertsonak horri heltzea eta buru-belarri aritzea, helburua lortu arte. Ekitea ez da krisirako irtenbidea soilik, baizik eta bizitzeko forma bat ere askorentzat. Eta beste askorentzat ere izan liteke, urrats hori eginez gero.

312

IZEN-EMATEAK

39

BOLUNTARIO
KOPURUA



NETWORKING

Ekainaren 16an, Bilboko Bilbo Rock aretoan, "Neskworcking" ekitaldia egin zen, emakume ekintzaileen arteko sare bat sortzeko xedez.

190

emakumek



gaztenpresa
fundazioa

KOMUNIKAZIOA ETA SARE SOZIALAK

Gaztenpresan online kanal batzuk ditugu, helburu hirukoitzarekin: informazio baliagarria eskaintzea ekintzaile izan nahi duten pertsoneri, bide hori jadanik hartuta dutenak gehiago bistaratzea, eta plataforma berriak irekitzea zalantzak dituzten pertsona guztiak atenditzeko.



2.699
FANS



36
JARRAITZAILE



2.304
JARRAITZAILE



133
JARRAITZAILE



268
JARRAITZAILE



64
JARRAITZAILE

Webgune berria

2016ko irailean, Gaztenpresaren webgune berria abiatu zen, diseinu erakargarriago batez, mugikorrei erantzuteko gaitasunarekin; halaber, informazioaren hierarkia berregituratu zen eta nabigarritasuna hobetu.

Atal berriak sortu dira:



PROBATU ZURE PROIEKTUA GAZTENPRESAREN TESTAK



Ekintzaileentzako testa

Auzartzen al zara zure ideia probatzera? Enpresa sortzen lagunduko dizuten 40 galteri a.



Enpresentzako testa

Zure negozioa hobiarazi nahi duzu? Egin test hau aholki eta etekin gehien ateratzeko.

Blog korporatiboa

Kategorien banaketa berri bat egin da blogean, artikuluen gaien banaketa sinplifikatzeko xedez. Gainera, post batzuk sistematizatu dira, bai Gaztenpresa osatzen duten enpresak gehiago bistartzeko eta bai ekintzailetzaren bidean sortzen diren zalantza nagusiak argitzeko.

gaztenpresa
fundazioa

NOR GARA | ENPRESA BAT SORTZEA | BLOG | PRESTAKUNTZA | DIRU LAGUNTZA | KONTA EZAGUJU ZURE IDEIA | NEGOTIO BAT DUZU

AZKEN SARRERAK

Nola bete eragiketa ekonomikoaren erregistro-liburua
11 maiatza, 2017, Leiala eta albarerak
Negozio-plan xehetua eta errealista egiten saiatu zara, orduak eta orduak eman dituzi azken xehetasunak lotzen eta, azkenik, alfa eman...

Saftzea: funtsezko zeregina zure enpresa berriak arrakasta izan dezan
8 maiatza, 2017, Formasurte
Enpresa bat marboan jartzan ari baziri, badakizu zure produktu edo zerbitzuak erosiko dituzten bezeroak lortzea dela enpresak funtzionatzeko oinarrietsiko...

Igone Castillo: "Gure denda hor dagoela ez konturatzea jendea, hori da txarra"
27 apirila, 2017, Aruena ekintzailea
Igone Castillo (Bilbo, 1978) du zubereri Doctor Retail aholkularitzak saltokian bertako marketean eta Interiorsent komertzioaren espezialista den bokarrek alegia...

Toldos Beroa, inplikazioaren eta ahaleginaren eredu
18 azarria, 2017, Aruena ekintzailea
Toldos Beroa inplikazioaren

Ekintzaile-sena duten liburuak
23 azarria, 2017, Aruena ekintzailea
Ondo apio cagigu ez dela gauza erraza ekintzaile izatea. Horregatik, lagundu egiten dituz

Gizarte-ekintzaileak mundua aldatzen ari dira

espeziatza noren, a nru negozio-proiektu bako gehiago egin ditugu errealitate. Hurrengo izan nahi duzu?
Izen-abizenak (nahitaezkoa)
Provincia (nahitaezkoa)
Helbide elektronikoa (nahitaezkoa)
Telefonoa (nahitaezkoa)
Eskutatu aukeratu den sarrera
Nahi baduzu, zure negozio-idearen berri lekur-lekur eman ahal ditugu (nahitaezkoa)

HALIKON SIGN NAHI DUTU

Menu
Gure Ekintzaileak
Aruena ekintzailea

PUBLIZITATE KANPAINAK



AMESLARIEN BILA GABILTZA

HAIEN PROIEKTUAK GAUZATZEKO

LABORAL KUTXAREN GAZTENPRESA EKINTZAIETZA PLANA



BUSCAMOS SOÑADORES
PARA HACER REALIDAD SUS PROYECTOS

HASTA **25.000 €** DE FINANCIACIÓN SIN AVALES
PLAN DE EMPRENDIZAJE GAZTENPRESA DE LABORAL KUTXA

Buscamos personas emprendedoras, creadoras... Sí, te buscamos a ti.

¿Cuál es tu sueño?

CON LA COLABORACIÓN DE



Gaztenpresa Fundazioa



PARTE HARTZEN DUGUN SAREAK



YOUTH BUSINESS INTERNATIONAL (YBI)

Irabazi-asmorik gabeko erakunde eta ekimen independenteak biltzen dituen sare global bat da, gazteei euren negozio propioak sortzen eta finkatzen laguntzen diena, enplegua sortzeko xedez. 34 herrialdetan du presentzia.



YOUTH BUSINESS SPAIN (YBS)

Estatuko gazteen artean dagoen langabezia mailagatik kezkatuta, YBIk laguntza eskatu dio Accentureri pertsona ekintzaileekin lan egiten duten erreferentziazko erakundeak identifikatzeko; horri lotuta, Fundazio berri bat eratzeraz gonbidatu gintuzten, beste bi erakunderekin: Youth Business Spain. Inpaktu kolektiboko ekimen bat da, autoenplegua gazteen artean sustatu nahi duena eta euren negozio propioak sortzeko, finkatzeko eta handitzeko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzen laguntzen diena; era horretan, haien garapen pertsonal eta profesionala sustatzen du, eta enplegua sortzen laguntzen du haien erkidegoetan.

Elkartzera bultzatu gaituen helburu nagusietako bat da hainbat erakunderen konpromisoak dakarren inpaktu kolektiboa, arazo sozial konplexu bat konpontzeri begira: langabezia.



EUROPEAN MICROFINANCES NETWORK (EMN)

Mikrofinantzen Europar Sareak (EMN) frogatu du funtsezko urrats bat dela mikrofinantzak Europar Batasunean sustatzeko, bazterketa sozial eta finantzarioaren aurka borrokatzen laguntzeko. EMNk laguntza aktiboa eskaini die mikroenpresei eta autoenpleguari, bertan parte hartzen duten erakundeen bidez; halaber, modu aktiboan jardun du EB mailan, eta ahaleginak egin ditu merkatu mikrofinantzario sendo bat sustatzen duten lege- eta araudi-esparruak eraikitzeko beharraz kontzientziazteko.

EMNn parte hartzen dugun bi Euskal erakunde bakarrok Seed Capital eta Gaztenpresa gara.



FUNKO- FUNDAZIOEN EUSKAL KONFEDERAZIOA

Konfederazioa 2003ko apirilaren 1ean eratu zen, Donostiako Kursaal Jauregian, Fundazioen topagune eta lankidetzagune izateko xedez. Bere asmoa da sektoreko interesen alde ahots bakarrez jardutea, eta botere publikoen mintzakidea izatea, ikuspuntu pluralista batez.



EGOERAREN BALANTZEA 2016

AKTIBOA	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2016
AKTIBO EZ-KORRONTEA	19.230	ONDARE GARBIA	177.100
		PASIBO EZ-KORRONTEA	562.637
AKTIBO KORRONTEA	899.258	PASIBO KORRONTEA	182.751
TOTAL ACTIVO	918.488	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	918.488

* Eurotan adierazita.

Galera eta irabazien kontua 2016

(Eurotan adierazita)

A) EKITALDIAREN SOBERAKINA	2016
OPERAZIO JARRAITUAK	
1. Jarduera propioaren sarrerak	952.262
a) Promozio, babesle eta laguntzaileen bidez eskuratutako sarrerak	672.262
b) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	280.000
2. Salmentaren eta merkataritza-jardueraren beste sarrera batzuk	3.490
2. Gastuak diru-laguntzengatik eta beste batzuen-gatik	(446.977)
a) Diruzko laguntzak	(12.389)
a) Diruz besteko laguntzak	(434.588)
3. Jardueraren beste sarrera batzuk	4.200
4. Jardueraren beste gastu batzuk	(492.798)
5. Ibilgetuaren amortizazioa	(3.777)
6. Hornigaien gehiegizko kantitatea	-
JARDUERAREN SOBERAKINA	16.400
7. Finantza-sarrerak	-
8. Finantza-gastuak	68
9. Truke-diferentziak	-
FINANTZA-OPERAZIOEN SOBERAKINA	(68)
SOBERAKINA, ZERGEN AURRETIK	16.332
9. Mozkinen gaineko zerga	-
ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAREN SOBERAKINEAN AITORTUA	16.332
ERRAKUNTZEK ERAGINDAKO DOIKUNTZAK	(12.934)
OSOKO EMAITZA, ONDARE GARBIAK EKITALDIAN IZANDAKO ALDAKETA	3.398

Nondik hasi

Ausartu zaitetz zeure negozioa abian jartzen

GAZTENPRESA FUNDAZIOA

www.gaztenpresa.org



900 101 143



info@gaztenpresa.org

LABORAL kutzaren BULEGO SAREA

www.laboralkutxa.com/es/buscar-oficinas



901 333 444



contactacon@laboralkutxa.com

CONSULTING PRO

consultingpro.laboralkutxa.com



900 100 240



Consulta Online

BULTZ-LAN CONSULTING

bultz-lan.com



info@bultz-lan.com



Bizkaia 94 410 21 44

Gipuzkoa 943 47 20 96

Araba 945 12 00 08



www.gaztenpresa.org